

Juan Kruz Igerabide. *Haur Korapiloak. Pamiela*

Limerick-ak

Gure aitonari belarri bat zitzaion handitu
eta bestea, alderantziz ttikitu.
Handiaz entzuten zituen izarren albisteak;
ttikiaz, berriz, atomoen txisteak.
Entzundakoarekin egunkari bat zuen eskribitu.

Bazen behin mutiko bat, mukitsua oso;
beti zintz eta zintz aritzen zen eroso.
Behin, hain gogor zintz egin zuen,
non sudur erdiko hezurra atera baitzuen.
Sudurzulo bakarra gelditu zitzaion, handia oso.

Abanikoa etengabe zerabilen Marisolek;
begi gozo-gozoz begiratzen zioten gizonek.
Sudurra ukitzen zuen abanikoaz etengabe,
txikiagotzen ari zitzaiola konturatu gabe.
Horrelaxe galdu zuen sudurra Marixolek.

Bazen Frantzian gizon bat berezia:
buru soilaren erdian ile bakarra zitzaion hazia.
Huraxe zuen antena,
aditzeko irratia eta trena,
eta haizeak urrundik ekarritako guztia.

Faustina Goikoetxearen begiak
hain ziren handi eta argiak,
non, betaurrekoen ordeztan,
neurri juxtuak gordez,
parabrisak jarri zizkioten berri-berriak.

Hotzikarak izaten zituen Terexitak;
berotzeko, kolkoan sartzen zituen baserriko txitak.
Terexita amona egin zen
eta txioka mintzatzen hasi zen.
Txioka amaitu zituen bere egunak amona Terexitak.

Aitona Domingori sudurrak
estaltzen zizkion ezpainak eta muturrak.
Arnasa hartzean,
ekaitza haizean.
Sudurraz biltzen zituen mahaiko ogi-apurrak.

Alejandra dama pinpirinak
lepoa hain zuen arina
ezen hiru jira egiten zizkion
eta hala ere bigun geratzen zitzaion.
Lepo bihurria zuen Alejandrak, alajaina!